

En Lintzoain en la Casa Consistorial del Valle de Erro a siendo las 17,00 horas, del día 25 de junio de 2014 se reunió el M. I. del Valle de Erro al objeto de celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con la asistencia de los Sres/as. Concejales/as D. Jesús Esteban Juanarena Apesteguía, Dña. Miren Orreaga Urtasun Alegre, D. Álvaro Villanueva Azcarate, D. Gabriel María Ernaga Esnoz y Dña. María Roncesvalles Martínez Sagardia, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Enrique Garrada Erro, asistiendo como Secretaria la de la Corporación D^a. Marisol Ezcurra Irure. Se incorpora a la sesión a las 17,50 h. el concejal D. Miguel Echamendi Hernandez.

1.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE SESION CELEBRADAS LOS DÍAS 9 Y 30 DE ABRIL DE 2014

El Ayuntamiento acuerda por unanimidad aprobar las actas de sesión celebradas los días 9 y 30 de abril de 2014.

2- RESOLUCIONES DE ALCALDIA DESDE EL 4 DE ABRIL HASTA EL 20 DE JUNIO DE 2014

Informa el Alcalde Sr. Garralda, del contenido de las resoluciones adoptadas desde el 4 de abril hasta el 20 de junio de 2014. Dándose los concejales por enterados.

- Si bien a la concejala Sra. Martinez solicita aclaración respecto a las resoluciones dictadas a nombre de Patxaran Biskarret S.L. informándole que hubo un primer requerimiento porque lo que estaba haciendo no correspondía con la licencia concedida y posteriormente y habiendo cumplido con todos los requisitos exigidos se le concede licencia de actividad clasificada y licencia de obras

- Por otro lado, al concejal Sr. Ernaga respecto a la resolución nº 85 se le informa que se trata de un recurso interpuesto por Elena Lozano contra resolución de alcaldía nº 64/2013 sobre liquidación. Que se mantuvo previamente una reunión en el despacho del letrado Hector Nagore, a petición de la letrada de Elena Lozano, para hablar sobre el borrador de la mencionada resolución e intentar resolver dicha liquidación, que se acordó un plazo para responder a la propuesta de resolución, plazo que por parte de la letrada de la recurrente no se cumplió, que el Ayuntamiento concedió nuevos plazos sin que hubiera respuesta y que finalmente tras un último intento, el alcalde Sr. Garralda procedió a firmar y notificar la resolución hoy recurrida.

- En cuanto a la resolución nº 101 dirigida a Asistencial Ibañeta S.L. se informa al concejal Sr. Ernaga, que se trata de una denegación de devolución de fianzas de RCD por no presentar justificantes de la correcta gestión de RCD.

3.- APROBACION DEFINITIVA CUENTAS 2013

Informa la Secretaria de que en el periodo legalmente establecido al afecto no se han presentado reclamaciones al acuerdo de éste Ayuntamiento de 9 de abril de 2014 por el que se aprobó inicialmente el expediente de cuentas de 2.013.

El Ayuntamiento en funciones de Comisión General de Cuentas aprueba con cinco votos a favor (Srs./as Urtasun, Juanarena, Villanueva, Martinez y Garralda) y uno en contra (Sr. Ernaga) aprobar definitivamente el expediente de cuentas de 2.013 que obra en el expediente de la sesión con el siguiente resultado

ESTADO DEL RESULTADO PRESUPUESTARIO

	EJERCICIO DE CIERRE
Derechos reconocidos netos	898.253,22
Obligaciones reconocidas netas	807.095,16
RESULTADO PRESUPUESTARIO	91.158,06

AJUSTES

Desviación financiación positiva	4.745,45
Desviación financiación negativa	0,00
Gastos financiados con Remanente de Tesorería	0,00
Resultado de operaciones comerciales	0,00
RESULTADO PRESUPUESTARIO AJUSTADO	86.412,61

ESTADO DE REMANENTE DE TESORERÍA

**EJERCICIO
DE CIERRE**

+ DERECHOS PENDIENTES DE COBRO	718.279,33
+ Ppto. Ingresos: Ejercicio Corriente	27.064,15
+ Ppto. Ingresos: Ejercicio Cerrados	181.880,29
+ Ingresos Extrapresupuestarios	685.906,89
- Derechos de difícil recaudación	176.651,98
+ OBLIGACIONES PENDIENTES DE PAGO	143.199,26
+ Ppto. Gastos: Ejercicio Corriente	88.485,67
+ Ppto. Gastos: Ejercicio Cerrados	4.606,83
+ Gastos Extrapresupuestarios	50.106,76
+ FONDOS LIQUIDOS DE TESORERIA	438.043,61
+ DESVIACIONES FINANCIACIÓN ACUMULADAS NEGATIVAS	0,00
= REMANENTE DE TESORERIA TOTAL	1.013.123,68
Remanente de Tesorería por Gastos con financiación afectada	0,00
Remanentes de Tesorería por Recursos afectados	10.088,83
Remanentes de Tesorería para Gastos Generales	1.003.034,85

RESUMEN GENERAL DE TESORERÍA

COBROS		PAGOS	
PRESUPUESTOS CORRIENTES	871.537,87	PRESUPUESTOS CORRIENTES	718.609,49
PRESUPUESTOS CERRADOS	21.294,92	PRESUPUESTOS CERRADOS	42.519,50
INGRESOS EXTRAPRESUPUESTARIOS	1.380.834,78	GASTOS EXTRAPRESUPUESTARIOS	1.676.547,37
TOTAL COBROS	2.273.667,57	TOTAL PAGOS	2.437.676,36
EXISTENCIAS INICIALES	602.052,40	EXISTENCIAS FINALES	438.043,61
TOTAL	2.875.719,97	TOTAL	2.875.719,97

4.- APROBACION DEFINITIVA PLANTILLA ORGANICA 2014

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda de que en el periodo legalmente establecido al afecto no se han presentado reclamaciones al acuerdo de éste Ayuntamiento de 9 de abril de 2014 por el que se aprobó inicialmente la plantilla orgánica correspondiente al año 2014.

La corporación aprueba por unanimidad de forma definitiva la siguiente plantilla orgánica para 2.014

Funcionarios.

Denominación del puesto: Empleado de Servicios Múltiples. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: E. Condiciones de ejercicio: Activo. Complemento de nivel 15%: Complemento de puesto de trabajo 35,77% Jornada completa.

Relación nominal de funcionarios

E.S.M.: Don Xabier Cía Urrutia.

Personal laboral fijo.

Denominación del puesto: Auxiliar Administrativo. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: D. Condiciones de ejercicio: Activo. Complemento de nivel: 12%, Complemento de puesto: 30.20%, Jornada: 71,44%.

Denominación del puesto: Auxiliar Administrativo. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: D. Condiciones del ejercicio: Activo. Complemento de nivel: 12%, Complemento de Puesto: 30,20%, Jornada: 71,44%.

Denominación del puesto: Empleado de Servicios Múltiples. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: E. Condiciones del ejercicio: Activo. Complemento de nivel: 15%. Complemento de Puesto de trabajo 8,77% Jornada: 29,33%.

Relación nominal de empleados fijos en régimen laboral.

Auxiliar Administrativo: Doña Ana Isabel Ermeta Erro.

Auxiliar administrativo: Doña María José Garralda Zubiri.

Empleado de servicios múltiples Doña Asunción Saragüeta Erro .

Servicios agrupados con los Ayuntamientos de Orreaga-Roncesvalles y Valle de Erro.

Denominación del cargo: Secretario. Número de plazas: 1. Forma de la provisión: Concurso-oposición. Nivel A. Complementos puesto de trabajo: 40%, Incompatibilidad 35% Jornada Completa.

Relación nominal de personal contratado en régimen administrativo

Ezcurra Irure, M^a Soledad. Secretaria interina. Situación: Activo.

5.- PROPUESTA AMPLIACION DE CAPITAL RESIDENCIAL AMMA IBAÑETA

Toma el alcalde Sr. Garralda que informa que realizadas y auditadas las cuentas del ejercicio 2013 de la Residencia Amma Ibañeta se comprueba que se ha generado una deuda de 70.000 euros. Que todos los años se han ido generando pérdidas que hasta ahora las había asumido el Grupo Amma.

La pérdida del año 2013 generada por una serie de causas, entre ellas no tener completa la ocupación de la residencia, tiene que ser asumida entre todos los accionistas de la misma, en la parte proporcional a su porcentaje de participación. Para ello, se propone que dicha deuda se pague mediante una ampliación de capital, propuesta que deberá ser aprobada mediante acuerdo de cada una de las entidades accionistas. Dicha cantidad, será destinada a sufragar los gastos de caja y que repercutirá directamente en los/as trabajadores/as, y en la que se tiene en cuenta la cantidad que habría que abonar a los/as mismos/as en caso de perder el recurso interpuesto por ellos/as.

Respecto a seguir teniendo pérdidas, señala que para el año 2014, en principio no va a haberlas ya que a partir del 2º semestre la residencia va a aumentar en 5 plazas más concertadas y la misma actualmente se encuentra al 100% de su capacidad.

Por último, informa de que reunidos los representantes de los Ayuntamientos nuevamente con el Grupo Amma, todos por unanimidad estaban de acuerdo en la

necesidad de aprobar la ampliación de capital pero también entienden que se debieran hacer más reuniones, buscar más eficacia y trabajar conjuntamente con los servicios sociales.

A la vista de todo ello, propone a la Corporación que apruebe dicha ampliación de capital y aporte la parte proporcional que le corresponda pagar de los 64.000 euros de pérdidas mencionados.

Toma la palabra la concejala Sra. Martínez que tras lo dicho por el alcalde Sr. Garralda , añade que de la misma manera que se asumen pérdidas, en caso de haber beneficios los mismos se deberían repartir entre los trabajadores y las Entidades Locales y no le consta que así sea. Así mismo considera que cuesta mucho tiempo y dinero mantener la Q de calidad de la residencia, cuando bastaba con dedicarlo a una buena atención asistencial. Toma la palabra el concejal Sr. Juanarena que señala que si la residencia ha tenido pérdidas este año también serán repercutidas en el grupo Amma en la parte que le corresponda.

Siendo las 17,50 h de la tarde, se retira de la sesión excusándose por ello la concejala Sra. Martínez, incorporándose 5 minutos después el concejal Sr. Echamendi.

Toma la palabra el concejal Sr. Ernaga que quiere manifestar que por parte del Ayuntamiento se depositó toda la confianza en la gestión de Amma, pero una empresa que tiene pérdidas desde el principio es que algo no funciona bien. Se han puesto camas nuevas y no se sabe que fin han tenido las camas que se han retirado, todo ello, teniendo una empresa en la zona que construye este tipo de camas y ni siquiera se han dignado a solicitar una oferta. Entiende que la parte que representa un 60% del capital aproximadamente, tiene el deber y la obligación de tener el centro con el número de residentes suficientes para conseguir que no haya pérdidas. Por tanto muestra su desacuerdo con la forma de gestionar la residencia entendiéndolo que quien lo está haciendo, la está gestionando muy mal, porque además de lo dicho, la deuda total no puede superar el 50% del activo que la empresa tiene que tener. Así mismo, solicita copia de las cuentas presentadas por el Grupo Amma, respecto a la residencia Ibañeta. En todo caso, no teniendo claro el tema porque hay cosas que considera que no están bien y que tendría que tener más tiempo para estudiarlo, no va a votar a favor de la propuesta del Sr. Alcalde.

Tras el debate, se acuerda con cinco votos a favor (Srs./as Urtasun, Juanarena, Villanueva, Echamendi y Garralda) y uno en contra (Sr. Ernaga), aprobar la ampliación de capital y aportar la parte que le corresponda de conformidad con el tanto por ciento de que dispone como accionista de la Residencia Amma Ibañeta.

6.- FUNDACION ERRO-RONCESVALLES

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que informa de la reunión mantenida con el Patronato de la Fundación y los alcaldes de las Entidades Locales que formaban parte de dicha Fundación para hablar sobre el acuerdo del Gobierno de disolver, entre otras, esta Fundación y que destino dar al dinero existente una vez realizada la liquidación. Dinero que se va a destinar, o bien a los proyectos acordados en su día y ejecutados y que en el caso del Valle de Erro eran los estercoleros y le corresponderían unos 30.000 euros, o

bien a nuevos proyectos siempre y cuando Hacienda de Navarra lo permita. Previamente por cada una de las Entidades se deberá presentar una declaración responsable con los gastos e ingresos de las obras ejecutadas.

La Corporación, se da por enterada.

7.- ESCUELA DE MUSICA ORREAGA

Toma la palabra la concejala Sra. Urtasun que respecto a la Escuela de Música Orreaga, informa de que en la última reunión del Consorcio, previa petición del Ayuntamiento de Berrioplano y estudio de los pros y contras de las consecuencias que dicha petición podía tener en el funcionamiento y desarrollo de la Escuela de Música Orreaga, se acordó que el Ayuntamiento de Berrioplano entrara a formar parte del Consorcio, con los mismo derechos y deberes que el resto de los Ayuntamientos integrantes del mismo, si bien los instrumentos los tienen que comprar ellos. El Consorcio entiende que la incorporación del Ayuntamiento de Berrioplano no solo no perjudica a la escuela si no que puede ser un beneficio ya que asegura la permanencia del profesorado que la escuela siga siendo viable.

Así mismo y con el fin de abaratar los costes de la escuela propone que el Ayuntamiento apruebe subvencionar un instrumento y medio y no como hasta ahora dos, 395 € el primer instrumento y el segundo la mitad, es decir 197,50 €. Así también a las personas que no se estén formando, el Ayuntamiento sólo le subvencionará del 100% que le toca el 50%, es decir si el coste es de 100 € y el Ayuntamiento hasta ahora subvencionaba 50, de esos 50 € ahora solo abonará 25 €.

Por último, informa que la figura jurídica de Patronato se ha cambiado por la figura jurídica de Consorcio, al ser varias las entidades locales que lo conforman.

8.- RATIFICACION INFORME CASA MARTINGAZTE

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que haciendo un resumen de los informes emitidos tanto por la arquitecta asesora del Ayuntamiento Ana Larequi, como del letrado Hector Nagore, concluye que en principio se debería ratificar los mismos acordar la declaración de ruina del edificio ordenando su demolición, si bien con fecha de hoy se ha tenido conocimiento de que se ha colocado junto a la casa una caseta de obra y que se van a llevar a cabo las obras de consolidación para las cuales los propietarios de la misma tenían concedida licencia de obras. Por ello y por prudencia se propone dejar el tema pendiente sobre la mesa a la espera de confirmar que efectivamente se van a llevar a cabo dichas obras de consolidación.

Se acuerda por unanimidad, dejar pendiente para próxima sesión este asunto a la espera de confirmar si se van a llevar a cabo o no, las obras de consolidación para las cuales los Srs. García Barberena cuentas con la licencia de obras correspondiente.

9.- APROBACION DEFINITIVA MODIFICACION PORMENORIZADA PROMOVIDA POR JESUS URRUTIA HUARTE EN ZILBETI

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda, que informa de que aprobado inicialmente en sesión de fecha 18 de diciembre de 2013 la modificación por la que se pretende modificar de la parcela. 21 del polígono 1 de Zilbeti, la alineación máxima de la edificación en la zona que linda con espacio público (sur y este de la parcela) con el fin

de acercar la vivienda a la calle y evitar así costes excesivos de excavación ya que el terreno presenta pendiente ascendente hacia el fondo y transcurrido el periodo de alegaciones sin que se formule ninguna, procede la aprobación definitiva de dicha modificación.

La Corporación por unanimidad acuerda, de conformidad con al art. 79 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo y procedimiento fijado por el art. 74 del mismo cuerpo legal.

- 1.- Aprobar definitivamente la modificación puntual de determinaciones pormenorizadas del Plan Municipal en el ámbito de la parcela 21 del polígono 1 de Zilbeti, según documento redactado por Íñigo Araiz presentado en octubre de 2013.
- 2.- Remitir el acuerdo junto con el documento diligenciado acompañado del presente informe al Departamento de Fomento del Gobierno de Navarra.

10.- APROBACION PROVISIONAL MODIFICACION ESTRUCTURANTE PROMOVIDA POR JOSE ANGEL CASTELLOT EN MEZKIRITZ

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda, que informa que no se ha dado respuesta todavía al requerimiento realizado por el Gobierno de Navarra, por lo que no se puede todavía aprobar provisionalmente la modificación, dejando el tema pendiente sobre la mesa hasta que se conteste al mencionado requerimiento.

Se incluyen, a propuesta del alcalde Sr. Garralda, por vía de urgencia estando toda la corporación de acuerdo los siguientes puntos:

1º.- Campaña para la Igualdad de Género en fiestas

La concejala Sra. Urtasun, informa de que se ha preparado por el Instituto Navarro de la Familia e Igualdad, una campaña para la igualdad de género en las fiestas locales cuyo objetivo es prevenir las violencias contra las mujeres. La Mancomunidad de Servicios Sociales Auñamendi, se ha adherido a ella y se invita a los Ayuntamientos a que se adhieran también a la misma.

Se acuerda por unanimidad, adherirse a la campaña para la igualdad de género en las fiestas locales, trasladando el acuerdo a la Mancomunidad Auñamendi y tramitar la solicitud de participación del Ayuntamiento en la mencionada campaña.

2º.- Moción Captación ETB en Navarra

Se acuerda por unanimidad aprobar la siguiente moción:

“En casa podemos ver uno de los dos canales de euskera que emite Euskal Telebista(ETB), ETB1, No podemos ver el canal para público infantil y juvenil, ETB 3. Ello supone una gran carencia, pues el resto de oferta para ese tramo de edad es íntegramente en castellano.

Después del apagón digital, diciembre de 2009 no tenemos la oportunidad de ver ETB a través de la Televisión Digital Terrestre (TDT). La calidad de los emisores analógicos no es la mejor y nos obliga a utilizar dos mandos a distancia. A eso hay que añadir que los nuevos aparatos de televisión no están preparados para la captación de canales analógicos. Además en breve, el apagón analógicos se hará en toda Europa y eso nos dejará sin opciones de ver ETB.

Es sabido que los medios de comunicación son hoy en día herramientas efectivas imprescindibles para dar vida a los idiomas. El título III de la Ley del Vascuence

reconoce esa importancia. Es por ello que al hilo de lo aprobado el 25 de octubre de 2013 en el Parlamento de Navarra, pedimos aprobar esta moción:

- 1. Esta Entidad pide al Gobierno de Navarra que explore nuevas vías para la captación por TDT de ETB en toda Navarra.*
- 2. Esta institución pide al Gobierno de Navarra que acepte fórmulas provisionales para que ETB pueda verse cuanto antes en Navarra. Por ejemplo, digitalizar la red analógica de ETB u otro tipo de fórmulas.*
- 3. Que esta Entidad envíe esta moción a todas las entidades locales de Navarra para que ellas la traten.”*
- 4. Enviar la moción al Gobierno de Navarra, Eusko Jaurlaritza y responsables de ETB.*
- 5. Dar cuenta de la moción en los medios de comunicación.”*

11.- INFORMACION VARIA

No hay puntos de información

12.- RUEGOS Y PREGUNTAS

- Toma la palabra el concejal Sr. Ernaga para preguntar si finalmente se ha solicitado entrevista con el Departamento de Fomento para el tema de río y otros corrimientos que se han producido, toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que contesta que todavía no, si bien va a llamar al Sr. Esteban Faci del Gobierno de Navarra para que además de tratar sobre las filtraciones del río, tratar también sobre un corrimiento en Erro detrás de Casa Orotz en el camino de Erro-Zilbeti.

- Así mismo, pregunta respecto a los sondeos de sílice realizados en Espinal, en que condiciones lo han dejado ya que había una partida dentro del proyecto para restauración. Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que pedirá a la arquitecto municipal para que se pase por la zona y haga informe al respecto.

- Sobre Ureta y la conducción de Iberdrola pregunta si se ha hablado con Esteribar para ver como lo hicieron ellos con Gendulain ya que es una situación similar. Toma la palabra la Secretaria que informa que Esteribar lo llevo a cabo con el permiso de Iberdrola pero con fondos íntegros del propio Ayuntamiento. Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que comenta la posibilidad de que dicha obra pudiera hacerse con el programa Leader por lo que sería bueno encargar a Ingeniería Sanchez una memoria presupuestada.

Por otro lado y en relación con la ampliación del polígono, informa que a la vista del coste que supone la subestación y que Iberdrola se niega a participar en la misma, resulta inviable proyectarlo así por lo que hay que estudiarlo más y ver que solución dar al mismo. Toma la palabra el concejal Sr. Ernaga que informa que en Carcar Iberdrola si que ha entrado al sufragar parte del coste de la subestación construida.

Así mismo, pregunta por las calles de Lintzoain, contestándole al alcalde Sr. Garralda que se solicitar por vía de urgencia y por último pide que se solicite una reunión con Salud para tratar sobre Consultorio de Biskarret.

Finalmente y para terminar la sesión el alcalde Sr. Garralda, da lectura a la carta que el médico del Valle Sr. Jose Antonio Perez Marco ha remitido al Ayuntamiento despidiéndose de la Corporación y todos los vecinos del Valle ya que por motivos de

salud y tras 38 años de servicio, no puede seguir trabajando más. La Corporación agradeciendo las palabras del Sr. Perez Marco se da por enterada.

Y no habiendo más asuntos que tratar siendo las 19,15 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2014ko ekainaren 25ean, 17:00etan, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian bilkura arrunta egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: Jesús Esteban Juanarena Apesteguia, Miren Orreaga Urtasun Alegre, Álvaro Villanueva Azcarate, Gabriel María Ernaga Esnoz eta María Roncesvalles Martínez Sagardia, bilkuraburu alkatea, Enrique Garrada Erro, izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Miguel Echamendi Hernandez zinegotzia bilkuran sartu da 17:50ean.

1.- 2014KO APIRILAREN 9AN ETA 30EAN EGINDAKO BILKUREN AKTEN ONESPENA.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2014ko apirilaren 9an eta 30ean egindako bilkuren aktak onartzea.

2.- ALKATEAREN EBAZPENAK 2014ko APIRILAREN 4tik EKAINAREN 20a ARTE

Alkateak 2014ko apirilaren 4tik ekainaren 20a arte eman dituen ebazpenen inguruko informazioa eman du. Zinegotziak jakinaren gainean gelditu dira.

- Martinez zinegotziak eskatu du Patxaran Biskarret S.L.-ren izenean emandako ebazpenen inguruko azalpenak ematea eta esan zaio lehenengo errekerimendua igorri zitzaiola egiten ari zenak ez zuelako bat egiten eman zitzaion baimenarekin, eta, ondoren, baldintza guztiak betetzen zituenean jarduera sailkatu baimena eta obra baimena eman zitzaizkion.

- Beste aldetik Ernaga jk. galdetu du 85 zkia, duen ebazpenaz eta esan zaio Elena Lozanok alkateak emandako 64/2013 ebazpenaren aurka jarritako errekurtsuoi dagokiola. Hori eman baino lehen bilera egin zela Hector Nagore letratuarekin, Elena Lozanoren letratuak eskatuta, ebazpenaren inguruan mintzatu eta kitapena konpontzeko, ebazpenaren proposamenari erantzuteko epe bat adostu zela eta errekurtsogilearen letratuak ez zuela epe hori errespetatu, Udalak epeak luzatu zituela baina erantzunik ez dela eman eta, azkenik, alkateak, Garralda jk., gaur errekurritu den ebazpena sinatu eta jakitera eman zuela.

- Asistencial Ibañea S.L.-ri igorri zaion 101 zkia, duen ebazpenari dagokionez, jakinarazi zaio Ernaga jaunari RCD delakoen fiantzen itzultzeko ukapena dela, ez baitute aurkeztu RCDak behar bezala kudeatzearen agiririk.

3.- 2013ko KONTUEN BEHIN BETIKO ONESPENA

Idazkariak jakinarazi du legeak ezarritako epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu Udalak 2014ko apirilaren 9an hartu zuen erabakiari, hots, 2013ko kontuen espedientea hasiera batean onesten zuenari.

Kontuak eztabaidatu ondoren Udalak, Kontuen Batzorde Bereziaren lana eginez, erabaki du aldeko bost botoz (Urtasun, Juanarena, Villanueva, Martinez eta Garralda) eta aurkako batez (Ernaga) 2013ko kontuen espedientea hasiera batean onartzea; hori bilkuraren espedientean dago.

AURREKONTUEN EMAITZEN EGOERA

	HERTSIERA Ixtea:
Aitortutako eskubide garbiak	898.253,22
Aitortutako betebeharrak	807.095,16
AURREKONTUAREN EMAITZA	91.158,06

Ezarpenak

Finantzazio positiboaren desbiazioa	4.745,45
Finantzazio negatiboaren desbiazioa	0,00
Diruzaintzako soberakinarekin finantzatutako gastuak	0,00
Merkataritza operazioen emaitza	0,00
AURREKONTUAREN EMAITZA EGOKITUA	86.412,61

DIRUZAINZAKO SOBERAKINAREN EGOERA

	URTALDIAREN ITXIERA
KOBRATZEKE DAUDEN ESKUBIDEAK	718.279,33
+ Diru-sarrereren aurrek.: Indarrean dagoen urtealdia	27.064,15
+ Diru-sarrereren aurrek.: Itxitako urtealdia	181.880,29
+Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	685.906,89
- kobratzeko zailak diren eskubideak	176.651,98
+ ORDAINTZEKE DAUDEN BETEBEHARRAK	143.199,26
+ Gastuen aurrek.: Indarrean dagoen urtealdia	88.485,67
+ Gastuen aurrek.: Itxitako urtealdia	4.606,83
+aurrekontuz kanpoko gastuak	50.106,76
+ DIRUZAINZAKO FONDO LIKIDOAK	438.043,61
+PILATUTAKO FINANTZAKETA NEGATIBOEN DESBIDERAKETA	0,00
= DIRUZAINZAKO SOBERAKIN GUZTIA	1.013.123,68
Ukitutako finantzazioa duten gastuengatikoko Diruzaintzako Soberakina	0,00

Ukitutako baliabideengatiko diruzaintzako soberakina	10.088,83
Gastuetarako diruzaintzako soberakina orokorretarako	1.003.034,85

DIRUZAINZAKO OROKORRA

LABURPEN

Kobrantzak

ORDAINKETAK

AURREKONTU ARRUNTAK	871.537,87	AURREKONTU ARRUNTAK	718.609,49
AURREKONTU HERTSIAK	21.294,92	AURREKONTU HERTSIAK	42.519,50
+Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	1.380.834,78	+aurrekontuz kanpoko gastuak	1.676.547,37
KOBRUAK GUZTIRA	2.273.667,57	ORDAINKETAK GUZTIRA	2.437.676,36
HASIERAKO IZAKINAK	602.052,40	BUKAERAKO IZAKINAK	438.043,61
GUZTIRA	2.875.719,97	GUZTIRA	2.875.719,97

4.- 2014ko PLANTILLA ORGANIKOAREN BEHIN BETIKO ONESPENA

Alkateak, Garralda jk., jakinarazi du legeak ezarritako epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu Udalak 2014ko maiatzaren 8an hartu zuen erabakiari, hots, 2014ko plantilla organikoa hasiera batean onesten zuenari.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2014ko plantilla organikoa behin betiko onartzea, hona hemen:

Funtzionarioak

Lanpostua. Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila Lan egoera: Jardunean Mailako osagarria %15. Lanpostuko osagarria %35,77 lanaldi osoa.

Funtzionarioen izen-zerrenda

Z.A.L.: Xabier Cía Urrutia.

Lan kontratudun finkoak

Lanpostua. Administrari laguntzailea Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila D. Lan egoera: Jardunean Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %30,20. Lanaldia: 71,44%.

Lanpostua. Administrari laguntzailea Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila D. Lan egoera: Jardunean Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %30,20. Lanaldia: 71,44%.

Lanpostua. Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila E. Lan egoera: Jardunean Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria %8,77, Lanaldia: 29,33%.

Lan kontratudun finkoen izen-zerrenda.

Administrari laguntzailea Ana Isabel Erneta Erro.

Administrari laguntzailea María José Garralda Zubiri.

Zerbitzu Anitzetako Langilea Asunción Saragüeta Erro a.

Orreaga eta Erroibarko Udalekin bateratutako zerbitzuak

Kargua: Idazkaria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. A Maila. Lanpostuaren osagarriak. %40, Bateriaezintasuna %35 Lanaldi osoa

Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:

Ezcurra Irure, M^a Soledad. Bitarteko idazkaria. Egoera: Jardunean

5.- AMMA IBAÑETA ZAHAR ETXEKO KAPITALA HANDITZEKO PROPOSAMENA

Alkateak, Garralda jk., jakinarazi du Amma Ibañeta Zahar Etxeko 2013ko urtealdiko kontuan egin eta ikuskatu ondoren, 70.000 euroko zorra dagoela ikusi da. Urtero galerak izan direla eta orain arte Amma Taldeak bere gain hartu zituela.

2013an izandako galeren arrazoien artean zahar etxea beterik ez egotearena dago, hori akziodun guztiek bere gain hartu beharko lukete, parte hartzen duten portzentaiaren arabera. Hartara, zorra kapital-gehikuntzaren bidez ordaintzea proposatu da eta akziodun entitate bakoitzak hori onartu beharko luke. Diru hori kutxako gastuak ordaintzeko erabiliko da eta langileei zuzenean eragingo die, eta horren barne kontuan hartuko da, langileek jarritako errekurtsioa galduz gero, ordaindu beharko litzaiekeen kopurua.

2014an aurreikusita dago galerarik ez dela egonen, 2. seihilekoaren ondoren 5 plaza hitzartu gehiago jarriko baitira zahar etxean eta gaur egun %100ean okupaturik dago.

Eta, azkenik, jakinarazi du Udaletako ordezkariak Amma Taldearekin izandako bileran guztiak ados zeudela kapitala handitzearekin, baina uste dutela bilera gehiago egin behar direla, eraginkortasuna lortzeko eta gizarte zerbitzuekin batera lan eginez.

Horiek horrela, proposatu dio udalbatzari kapitala handitzeko proposamena onartzea eta aipatutako galeren 64.000 eurotik dagokion zatia ordaintzea.

Martinez ak. hitza hartu du eta Garralda jk., alkateak, esandakoren ondoren aipatu du galerak onartzen diren moduan, onurak egonez gero horiek ere langileen eta Toki Entitateen artean banatu beharko lirakeela. Modu berean uste du egoitzaren kalitatezko Q lortzeko denbora eta dirua gastatu ordez diru hori egoitza hobetzen gastatu behar izan zela.

Juanarena jk. hitza hartu du eta esan du zahar egoitzak aurten galerak izan baditu Amma Taldeak berari dagokion proportzioan bere gain hartu beharko dituela.

Arratsaldeko 17:50ean Martinez a. bilkuratik joan da eta 5 minutu beranduago Echamendi j. sartu da.

Ernaga jk. hitza hartu du eta esan du Udalak konfidantza osoa jarri zuela Ammaren kudeaketan, baina hasieratik galerak izan baditu zerbait gaizki dabilenaren seinalea dela dio. Ohe berriak jarri dira eta ez dakigu zer egin duten kendutako ohekin, kontuan hartuta badagoela eskualdean mota horretako oheak egiten dituen enpresa bat eta ez diotela ezta eskaintza bat ere eskatu. Uste du kapitalaren %60 gutxi gora behera duena behartuta dagoela galerak ez izateko nahikoa egoiliar edukitzeko. Hortaz, ez dago ados zahar etxea kudeatu den moduarekin, uste baitu gaizki egiten ari direla, besteak beste, zorra ezin baita enpresaren aktiboaren %50 baino gehiago izan. Modu berean, Amma taldeak aurkeztu dituen Ibañeta zahar etxearen kontuen kopia eskatu du. Nolanahi ere, ez du gaia argi ikusten uste baitu badaudela gaizki dauden zenbait gauza eta horiek aztertzeko denbora gehiago beharko lukeenez, ez du alkatearen proposamenaren alde bozkatuko.

Eztabaidatu ondoren, erabaki da aldeko bost botoz (Urtasun, Juanarena, Villanueva, Echamendi eta Garralda) eta aurkako boto batez (Ernaga) kapitala handitzea eta Amma Ibañeta Zahar Etxeko akzioduna den aldetik dagokion ehuneko ematea.

6.- ERRO-ORREAGA FUNDAZIOA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du bilera egin zela Fundazioaren Patronatuaren eta Toki Entitateetako alkateen artean Gobernuak Fundazioa deuseztatzeko erabakia hartu baizuen eta kitapena egin ondoren gelditzen den dirua zertan gastatu adosteko. Diru hori bere garaian adostutako eta dagoeneko egindako proiektuentzako izango da, Erroibarko Udalaren kasuan ongarritegiak, horrengatik 30.000 € dagokiola udalari, edo bestela proiektu berriak egiteko erabil daiteke, Nafarroako Ogasunak baimena emanaz gero. Aldez aurretik Entitate bakoitzak egin dituen lanen gastu eta diru-sarreraren deklarazio arduratsua aurkeztu beharko du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

7.- ORREAGA MUSIKA ESKOLA

Urtasun ak. hitza hartu du eta esan du Orreaga Musika Eskolari dagokionez, Partzuergoak egindako azkeneko bileran, Berribeitiko Udalak eskatuta, eta Udal hori sartzeak eskolaren funtzionamendu eta garapenean izan ahal dituen alde onak eta txarrak aztertu ondoren, erabaki zela Berribeitiko Udala Partzuergoan sartzea, hura osatzen duten gainontzeko Udalek dituzten eskubide eta betekizun berdinak izanda, eta musika tresnak Udal horrek erosi beharko dituela. Partzuergoak uste du Berribeitiko Udala sartzea onuragarria izan daitekeela irakasleak egonkortzen dituelako eta eskola bideragarria egiten duelako.

Modu berean eta eskolako kostuak merketzeko proposatu da Udalak musika tresna bat eta erdi diruz laguntzea, eta ez bi, orain arte bezala, lehenengo musika tresna 395 € eta bigarrena horren erdia, hots, 197,50 €. Modu berean ikasten ari ez direnei, Udalak dagokion %100etik %50 emango die, hau da, kostua 100 € baldin bada eta Udalak orain arte 50 € ematen bazuen, hemendik aitzina 25 € emago ditu.

Azkenik, jakinarazi du Patronatua izan ordez Partzuergoa izango dela hemendik aitzina, toki entitate asko direlako hura osatzen dutenak.

8.- MARTINGAZTENEKO TXOSTENAREN BERRESPENA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta Udalaren arkitektoak, Ana Larequik, eta Hector Nagore letratuak egin dituzten txostenak laburbilduz, ondorioztatu da horiek berretsi beharko liratekeela eta etxearen auri-egoera adostu botatzeko aginduz, baina gaur jakin duela etxearen ondoan obra-etxola bat jarri dutela eta badirudiela etxea egonkortzeko lanak egin behar direla, jabeek eskatutako obra baimenaren arabera. Hortaz, badaezpada gaia mahai gainean uztea proposatu du, etxea egonkortzeko lanak benetan egingo diren baieztatu arte.

Aho batez erabaki da gaia hurrengo bilerarako uztea, egonkortze-lanak egingo direla baieztatu arte, Garcia Barberena familiakoek obrak egiteko baimena badutelako.

9.- JESUS URRUTIA HUARTEK ZILBETIN SUSTATU DUEN ALDAKETA XEHAKATUAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du 2013ko abenduaren 18ko bilkuran Zilbetiko 1 poligonoko 21 lursailean egin nahi den aldaketa hasiera batean onetsi zela, hots, karrikarekin muga egiten duen lursailaren zatian gehieneko lerrokadura aldatu nahi da (lursailaren hego eta ekialdea), etxebizitza karrikara hurbildu eta hondeaketa-lanen kostua jaisteko, lursailaren barneko aldean malda baitago, eta alegazioak aurkezteko epean ez denez ezta bat ere aurkeztu, aldaketa behin betiko onetsi da.

Lurraldearen Antolakuntza eta Hirigintzako 35/2002 Foru Legearen 79. artikularekin eta 74. artikuluan ezarritako prozedurarekin bat etorritik Udalbatzak erabaki du aho batez:

1.- Zilbetiko 1 poligonoko 21 lursailean Udal Planak ezarritako zehaztapan xehakatu aldaketa puntuala behin betiko onartzea; aldaketa hori Iñigo Araizek egindako eta 2013ko urrian aurkeztutako dokumentuan zehazten da.

2.- Dokumentua behar bezala bideratua eta informe honekin batera Nafarroako Gobernuak Sustapen Departamentura igortzea.

10.- JOSE ANGEL CASTELLOT GARCIAK MEZKIRITZEN SUSTATU DUEN EGITURAZKO ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Nafarroako Gobernuak egin zuen errekerimenduari oraindik ez zaionez erantzunik eman, ezin dela aldaketa hasiera batean onartu eta gaia errekerimendu hori erantzun arte mahai gainean uztea proposatu du.

Alkateak, Garralda jk., proposaturik, honako gaiak sartu dira urgentziaz eta udalkide guztien adostasunaz:

1º.- Festetan Genero Berdintasuna sustatzeko kanpaina

Urtasun ak. jakinarazi du Familiaren eta Berdintasunaren Nafarroako Institutuak herrietako festetan genero berdintasuna sustatzeko kanpaina prestatu duela emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko. Añamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak bat egin du kanpaina horrekin eta Udal guztiak gonbidatu ditu gauza bera egitera.

Aho batez erabaki da **herrietako festetan genero berdintasuna sustatzeko** kanpainarekin bat egitea, erabakia Añamendi Mankomunitatera igortzea eta kanpainan parte hartzeko eskaera bideratzea.

2.- Nafarroan ETB hartzeko mozioa

Aho batez erabaki da mozio hau onartzea:

“Etxean Euskal Telebistak (ETB) emititzen dituen euskarazko kanaletako bat ikus dezakegu, ETB1. Baina ezin dugu hau eta gazteentzako kanala, ETB3. Horrek gabezia handia suposatzen du, adin tarte horretarako dagoen gainontzeko eskaintza gaztelera hutsean baita.

2009ko abenduaz geroztik ezin dugu ETB Lurreko Telebista Digitalaren bidez ikusi. Igorgailu analogikoen kalitatea ez da hobereena eta bi mando erabiltzera behartzen gaitu. Horri gehitu behar diogu telebista aparailu berriak ez daudela kanal analogikoak hartzeko prestatuak. Gainera, hemendik gutxira, itzalaldi analogikoa Europa osoan egingo da eta ezingo dugu ETB ikusi.

Jakina da komunikabideak direla gaur egun hizkuntzak bizirik irauteko ezinbesteko tresnak. Euskararen Legearen III tituluak garrantzi hori onartzen du. Hortaz, Nafarroako Legebiltzarrak 2013ko urriaren 25ean onartuari jarraiki, mozio hau onartzea eskatzen dugu:

1. Entitate honek eskatzen dio Nafarroako Gobernuari Nafarroa osoan ETB Lurreko Telebista Digitalaren bidez hartzeko dauden aukerak azter ditzala.

2. Erakunde honek eskatzen dio Nafarroako Gobernuari Nafarroan ETB lehen baino lehen ikus dadin behin-behineko bideak onar ditzala. Adibidez, ETBko sare analogikoa digitalizatzea, edo bestelako bideak ere.

3. Entitate honek bidal dezala mozio hau Nafarroako toki entitate guztietara, beraiek ere erabakia har dezaten”.

4. Mozioa Nafarroako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari eta ETBko arduradunei igortzea.

5. Mozioaren gaineko informazioa komunikabideetara bidaltzea”.

11.- BESTERIK

Ez dago informaziorik.

12.- ESKARIAK ETA GALDERAK

- Ernaga jk. hitza hartu du eta galdetu du Sustapen Departamentuari bilera eskatu zaion, ibaiaren gaia eta gertatu diren lur-jauzien inguruan mintzatzeko; alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta erantzun dio oraindik ezetz, baina Nafarroako Gobernuako Esteban Faciri deitu behar diola ibaiaren arazoaz gain Errotik Zilbetira doan bidean, Orotx etxearen atzeko aldean, gertatu den lur-jauziaz mintzatzeko.

- Modu berean galdetu du Aurizberrin egin diren zundaketetaz eta tokia nola utzi duten, bazegoelako diru-partida bat proiektuaren barne lekua zegoen bezala uzteko. Alkateak, Garralda jk., erantzun dio eskatuko diola udal arkitektoari handik pasatzea eta txostena egitea.

- Ernaga jk. galdetu du Uretara argia eramateko gaia zertan den, Esteribarko Udalarekin mintzatu den jakiteko nola egin zuten beraiek Gendulainekin, egoera antzekoa baizen. Idazkariak erantzun du esanez Esteribarrek Iberdrolaren baimenarekin egin zuela baina Udalak ordaindu zuela kostu guztia. Alkateak, Garralda jk., esan du badagoela obra hori Leader programaren bidez egiteko aukera eta Ingenieria Sanchez delakoari memoria bat egitea esan ahal zaiola.

Beste aldetik industrialdearen handitzeari dagokionez, jakinarazi du beharrezkoa den azpiegituraren kostua altua denez eta Iberdrolak ez duenez horretan parte hartu nahi, ez dela bideragarria eta berriro aztertu behar dela konponbidea bilatzeko. Ernaga jk. hitza hartu du eta jakinarazi du Carcarren Iberdrolak ordaindu duela egin den azpiegituraren zati bat.

Modu berean Lintzoaingo karrikeri buruz galdetu du eta Garralda jk. erantzun dio urgentziaz eskatuko dela eta, azkenik, eskatu du Osasunbidearekin bilera eskatzea Bizkarretako kontsultategiaz mintzatzeko.

Azkenik eta bilera bukatzeko Garralda jk., alkateak, Erroibarren mediku lanetan aritu den Jose Antonio Perez Marcok igorri duen eskutitza irakurri du, Udalaz eta ibarreko bizilagun guztietaz agurtuz, osasun arazoak direla kausa eta lanean 38 urte aritu ondoren ezin baitu lanean jarraitu. Udalbatzak Perez Marcoren hitzak eskertuz, jakinaren gainean gelditu da.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 19,15ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.